

ERABAKIA, 2021eko UZTAILAREN 12koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO ONDORENGO PROZESURAKO ESKAINTZEN DIREN LANPOSTUAK ARGITARATZEKO ETA LANPOSTUOK ESKATZEKO EPEA IREKITZEKO: TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KATEGORIAN, LORAZAINTZA ESPEZIALITATEAN, III. TALDEA.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 23. artikulua xedatzen du administrazio publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideen arloko premiak lan eskaintza publikoaren bidez beteko direla, aurrekontu izendapena badute. Era berean, adierazten du, bete beharreko plaza hutsak jasoko direla lan eskaintza publikoan, bai funtzionarioenetan, bai lan kontratadun finkoenetan: lan kontratadunenak kategorietan sailkatuta eta funtzionarioenak talde, kidego eta eskalen arabera.

2016ko abuztuaren 10ean, EHAA n argitaratu zen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 7an hartuta erabakia, 2016ko lan eskaintza publikoa onartzen zuena administrazio eta zerbitzuetako lan kontratadunetan 44 lanpostu betetzeko.

Bestalde, 2017ko abenduaren 26an EHAA n argitaratu zen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 14an hartutako erabakia, administrazio eta zerbitzuetako lan kontratadun langileen 2017ko lan eskaintza publikoa onartzeari buruz AZPko lan kontratadun langileen negoziazio mahaiak urriaren 23an hartutako erabakia berrestekoa.

Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko Erabakiaren bidez Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) lan kontratadun langileak sartzeko hautaketa prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratzea agindu zen. Hautaketa prozesuok Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko eta 2017ko abenduaren 14ko erabakien ondorio dira, erabaki haien bidez onartu baitziren administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2016ko eta 2017ko lan eskaintza publikoak.

Aipatutako hautaketa prozesuko oinarri zehaztatetik lehenengoan jasota daude lehiaketa-oposizio hautaketa sistemaren bidez beteko diren plazak. Hala ere, prozesua gainditu duten kideen behin-behineko zerrenda (puntuazioaren arabera hurrenkeran) argitaratu ondoren, eta betetzeko oinarri orokorretako bederatzigarrenean zehaztutakoa (*Prozesua gainditu eta hautatu direnen zerrenda. Lanpostua aukeratzea eta esleitzea*), argitara eman behar dira deialdi honetako lanpostuak, izangaiek lanpostua aukeratu eta esleipena egiteko.

Horregatik guztiatik eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- - Argitaratzea Teknikari espezialisten kategorian, lorazaintza espezialitatean lanposturako (III. taldea) deitutako hautaketa prozesuan eskaintzen diren

lanpostuak, txandaren arabera banatuak eta prozesu hau arautzen duten oinarri espezifikokoetako lehenengoan ezarritakoaren arabera:

“Plaza bat (1) Teknikari Espezialisten kategorian, Lorazaintza espezialitatean, txanda librean, 2. HE eta derrigortasun-datarik gabe.”

Bigarrena.- - Oinarri orokorretako 8.6 puntuari jarraituz, hamar (10) egun baliouduneko epea irekiko da prozesua gainditu duten pertsonen aukera ditzaten beren lehentasunaren arabera. Era berean, adierazten zaie galdu egingo dituztela hautaketa prozesu honen bidez lortutako eskubideak, baldin eta oinarri hauei jarraituz ez badute lanposturik aukeratu horretako zehaztutako epe eta eran.

Hirugarrena.- Argitaratzea erabaki hau UPV/EHUUn <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-2016-2017-lan-kontratudun-pertsonala> webgunean, bai eta UPV/EHUren iragarki oholetan ere.

Laugarrena.- - Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsa jar daiteke zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Epeok erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Leioa, 2021eko uztailaren 12a.

Miren Lorea Bilbao Arteche
UPV/EHUko gerentea

ESKAINITAKO LANPOSTUAK

LZ	LANPOSTUA	B E	DOT	MAILA	H.E.	BET. ESP.	BET. ESP.	CAMPUS	LANGUNEA	LANALDIA
L 66	Mantentze laneko ofiziala	L	15	19	2			3	PLANGINTZA ETA AZPIEGITURETAKO GERENTEORDETZA	Arautua